

EGIAN AISIALDIKO ORTU EKOLOGIKOAK ERABILTZEKO ETA APROBETXAMENDU BEREZIA EMATEKO BAIMENAK EDO LIZENTZIAK EMATEKO BALDINTZEN PLEGUA EDO OINARRI ARAUTZAILEAK

Galdakako udalbatzak, 2011ko irailaren 29an egindako osoko bilkuran, garapen iraunkorrari eta hori bultzatzeko ekintzei buruzko mozioa onetsi zuen. Ekintza horien artean ortu ekologikoak sortzea dago.

Onetsitako mozioak proposatzen zuen udalbatzak udal lursailetan ortu ekologikoak nola sortu aztertzea eta erabaki zuen epe ertainean herritarren esku ortu ekologikoak sor daitezen bultzatzeko benetako urratsak ematea.

Ekintza hau, 2013ko otsailaren 28ko udalbatzaren osoko bilkuran onetsitako Toki Agenda 21eko II. Ekintza Planean jasotzen zen, 2.1 Programan. *“Hiri inguruko eta periferiko paisaiako gune berdeak balioan jarri eta egokitu eta biztanleriarekin lotu” eta zehazkiago 2.1.3 ekintzan “Aisialdirako ortu ekologikoen proiektu baten gauzapena eta exekuzioa”.*

Bere helburu nagusia da ingurumen-hezkuntza gizarte-sektore guztietan zabaltzeko baliabideak sortzea, herriko herritarren artean jarrerak eta balioak aldatzea sustatuz, portaera parte-hartzaileak eta erantzuleak sorraraziz. Era berean, herritarren esku inguru bat jarri nahi da norbere barazkiak eta ortuariak ekoizteko.

Hori horrela, jardun honek ondokoa inplikatzeko du:

- Azpiegitura eta baliabideak izatea erabiltzaileek eremu arautua izan dezaten, bertan norbere kontsumorako elikagai ekologikoak ereiteko.
- Aisialdiaren eskaintza askotarikoa izatea eta aisialdi aktiboa sustatzea.
- Osasun ona mantentzeko elikadura osasuntsuak duen garrantziaz jabetzea.
- Ortuari mota tradizionalak erabiltzeak duen garrantziaz sentsibilizatzea, inguruari hobeto egokituta dauden espeziak diren aldetik eta, beraz, zainketa eta trataera gutxiago behar dutelako.
- Baserriko praktika eta ezagutza tradizionalak balioan jartzea eta transmititzea.
- Natura errespetatzea jabetzeko sentimendu positiboak motibatzen dituzten balioak sustatzea, naturatik beretik modu ekologiko batez fruituak lortuz, ingurune naturala eta ziklo naturalak errespetatuz, lurra ez degradatuz eta ingurunean aldaketa handirik eragin gabe.

Ingurumen-hezkuntzari egiazko balio-hezkuntzaren zentzua eman nahi zaio, herritar arduratsuak prestatu ditzagun.

Ondorioz, beharrezkoa da pertsona adjudikaziodunen aukeraketa arautu behar duten baldintzak eta aisialdiko ortu ekologikoak erabiltzeko baimenak emateko araubidea onestea.

LEHENENGOA.- HELBURUA

Plegu honen helburua da Egiako zonaldean udalaren titulartasuneko aisialdiko ortu ekologikoetarako den jabetza publikoko lurzorua eskuratzeko, hautatzeko, erabili eta gozatzeko eta aprobetxatzeko irizpideak arautzea (Planoa erantsita dago).

BIGARRENA.- EGIAKO ORTUEN DESKRIBAPENA

Egiako demanio-lurzoruetan dauden aisialdiko Ortu Ekologikoen proiektuak 36 ortu daude mugatuta, 40m² eta 50 m² arteko azalera dutenak.

Partzelak indibidualizatuta daude.

Udal jabetzako instalazio komunei dagokienez, guneak ondokoa du:

- Behe-solairuan gutxi gorabehera 30 m²ko ekipamendua, bertan aldagelak jartzeko, takilak, dutxa, komuna eta gela bulego bat.

- Nekazari lanabesak biltzeko eremu itxia.

Barrutia itxita dago bere perimetroan. Inguruko partzelekiko muga eta bidea ohiko sareaz edo desnibel handia egonez gero, bestelako landare-oztopo bat jarrita konponduko zen.

Era berean, uraskak denek erabiltzekoak dira eta eremu komunak egon ahalko dira: hazitegia, konpostatze zonaldeak eta abar.

Erreserbatutako zonaldeak daude, Udalak zehaztuko dien erabilerarako, planoan Zona Komun gisa identifikatuta daudenak, eta Udalak elkarteari inolako tasarik ordaintzen ez diena.

Hala ere, Proiektu honek aldaketak izan ditzake, arrazoi teknikoak edo eraikuntzazkoak tarteko. Udalak, partzelen antolaketan eta banaketan, aldaketak egiteko eskubidea beretzat gordetzen du, hala nola gorabeherak edo ustekabekoak gertatuz gero, azalera aldatzeko ere.

HIRUGARRENA.- IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

1.- Tokiko Erakundeen Ondasunen Erregelamenduko 75.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, udalaren aisialdiko ortuen erabilerak jabetza publikoko ondasunen erabilera komun berezia suposatzen du eta nahitaez administrazioaren baimena edo lizentzia izan beharko du.

Ortu ekologikoak erabiltzeko baimenak ez dakar inoiz ere lursailaren jabetza eskualdatzen denik, udal jabetzako izaten jarraituz.

2.- Baldintza Plegu honek arautuko du udal ortu ekologikoak eskuratu, erabili eta gozatzea. Bertan aurreikusi ez denari dagokionez, ondokoetan xedatutakoa betekoa da: Herri-administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen oinarritzko araudia, Bigarren Azken Xedapenaren arabera; apirilaren 2ko 7/85 Legea, Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituenak; ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua, Toki-erakundeen Ondasunen Erregelamendua onetsi duena; eta, berauetan xedatuta ez dagoenari dagokionez, Herri-administrazioen Ondareari buruzko 33/2003 Legearen gainerako xedapenek eta Herri-administrazioen Kontratuen Legeak eta garatzen duten xedapen.

LAUGARREN.- BAIMENEN EDO LIZENTZIEN ESKUALDAGARRITASUNA.

Aisialdiko ortuak erabiltzeko eskubidea eman duten baimenak ez dira eskualdagarriak izango beste inorentzat.

BOSGARRENA.- ERABILTZEKO BAIMENA ORDAINTZEA

Kontuan hartu da Abenduaren 16ko 9/2005 FORU-ARAU, Toki Ogasunei buruzkoa, 21 artikulua arabera, tokiko jabetza publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu bereziagatik tasak ezar ditzakete udalek, adjudikazioaren pertsona titularrak, bere kasuan, Aisialdiko Ortu Ekologikoak ustiatzeko baimenagatik dagokion zerga kitatu beharko du, dagokion Ordenantza Fiskalak aurreikusitakoaren arabera.

SEIGARRENA.- FIDANTZA

Erabiltzeko eskubidearen pertsona adjudikaziodunak 62,50 eurotako berme bat ordaindu beharko du eskudirutan.

Fidantza hau ondasunen edo instalazioen erabilerari eta birjartzeari edo konpontzeari dagokien bermea da, edo, hondatu badira, kalteen ordaina. Sortutako gastuen kobrantza, emandako bermea baino gehiago balitz, premiamendu-bidez ordaindu ahal izango da.

Fidantza itzuliko da eskubidearen adjudikaziodunak ortuarekin ez jarraitzeko borondatea aitortzen duenean edo lizentziako epea amaitzen denean, mantenuko baldintzak bete badira.

ZAZPIGARRENA.- HARTZAILEAK

1.- Aisialdiko ortuak erabiltzeko baimenen pertsona titularrak izan daitezke Galdakako udalerrian, deialdiaren data-egunean, erroldaturik dauden pertsona fisikoak eta, gainera, ondoko baldintzak betetzen dituztenak:

a) Adin nagusiko pertsona fisikoa izatea.

b) Gaitasun fisikoa eta psikikoa izatea, aisialdiko ortuan garatu beharreko nekazaritzako lanak egiteko.

c) Galdakako udalarekiko zerga-betebeharren ordainketa egunean izatea.

d) Bizileku berean bizi den edozein pertsonak beste baimen baten titularra ez izatea. Eskabide bat baino ez da onartuko bizileku bakoitzeko, bertan erroldaturik dauden pertsona-kopurua edozein dela ere. Bizileku berean eskabide bat baino gehiago egongo balitz, Udalean erregistratu den lehenengo eskabidea izango da onartuko dena.

e) Aurretik zigortuta ez izatea, aisialdiko ortu ekologikoen titulartasunari dagokionez, edo pertsona adjudikazioduna izan den partzelatik kenduta ez izatea.

f) Aisialdiko ortu ekologiko baten adjudikazioaren pertsona onuradun izana ez izatea, deialdi honen aurrekoan bertan eta behintzat bi urtez egon bada, eskabide nahikorik ez badago.

3.- Ortuko titular bat baino ez da onartuko.

4.- Erabiltzaile izaerarik ez dute izango, Galdakako udalerrian lantzeko moduko lursailak dituztenek.

5.- Baldintzak adjudikazio osoan zehar bete beharko dira. Kasu guztietan, artikulua honetan adierazitako edozein baldintza betetzen ez bada, pertsona interesduna zozketatik kanpo geratuko da edo, gerora sortutako arrazoia bada edo adjudikazioaren ostean ezagutuko balitz, adjudikazioa bertan behera geratuko da.

ZORTZIGARRENA.- ADJUDIKAZIO PROZEDURA

ERRESERBEN ADJUDIKAZIO PROZEDURA

1. Udalaren aisialdiko ortuak erabili ahal izateko lizentziak edo baimenak emateko aplikatu behar den prozedura, onartutako eskabide guztien arteko zozketa bidez izango da.

2.- Egiako ortu ekologikoen partzeletatik 34 zozketatuko dira eta Udalak 2 partzela beretzat gordeko ditu gizarte-hezkuntzako helburuetarako. Nolanahi ere, hauek adjudika ditzake eskaerarik ez balego. Udalak ez du dirurik jarriko gastu komunitarako partzela horiek erabiltzeagatik.

DEIALDIA. ESKABIDEAK

1.- Prozedura administrazioaren kabuz hasiko da, Egiako aisialdiko ortu ekologikoak erabili eta gozatzeko baimenak edo lizentziak emateko deialdiaren baldintza berezien Plegua edo oinarri arautzaileak onesten dituen Alkate Ebazpenaren bidez.

Deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Udalaren Iragarki-oholean eta udalaren web orrian argitaratuko da. Pertsona interesdunek hamabost egun balioduneko epea izango dute horri buruzko eskaerak aurkezteko.

2.- Deialdiaren iragarkiak ondokoa izan beharko du:

- a) Sustapen bakoitzeko aisialdiko ortu ekologikoak kokatzen diren eremua.
- b) Erabil daitekeen partzela-kopurua.
- c) Eskabideak aurkezteko epea, deialdi publikoa BAOean argitaratu den biharamunetik hasita hamabost egun balioduneko epea izango da.

3. Deialdiaren barruan, aisialdiko ortu baten erabileraren eta aprobetxamenduaren adjudikazioan interesaturik dauden pertsonak eskabidea aurkeztu beharko dute, ondoko dokumentazioa erantsiz:

- NANaren edo legez ordezkatzeko duen dokumentuaren fotokopia.
- Erantzukizun Adierazpena, ezarritako ereduaren arabera, Oinarri hauetan eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela adieraziz, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den data aipatuz beti.

Administrazioaren kabuz egiaztatuko dira, errolda eta zazpigarren oinarriaren lehenengo puntuko c) eta hurrengo ataletan eskatzen diren baldintzak.

ZUZENKETAK ETA BEHIN BETIKO ZERRENDAK

1.- Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, Alkate Dekretu bidez onartuen eta kanpoan utzitakoen zerrenda onetsiko da eta Galdakako udalaren web-orri ofizialean eta Udalaren Iragarki-oholean argitaratuko da. Ebazpen horretan, argitaratu den biharamunetik hasita hamar egun balioduneko epea emango da, eskabideetan leudekeen akatsak zuzentzeko.

2.- Epe hori amaitu ondoren, Alkateak ebazpena emango du behin betiko onartuen zerrendarekin, eskatzaile bakoitzari zenbaki bat ezarritako alfabetoaren hurrenkeran, zozketan parte hartuko duten ordena izango dena, lehentasunezko bestelako hurrenkerarik ez dagoela. Era berean, zozketa hasiko den lekua, data eta ordua adieraziko dira. Ebazpen hori Galdakako udalaren iragarki-oholean eta Udalaren web ofizialean argitaratuko da.

ZOZKETA

Zozketarako boto-ontzian sartuko dira, aurreko paragrafoan ezarritakoa aplikatuz, behar diren besteko txartelak.

Zozketarako txarteletako bat aterako da eta ateratako txartelean dagoen zenbakia esleiturik daukan pertsona izango da Egiako aisialdiko ortu ekologikoetako bat erabiltzeko eskubidearen adjudikaziodun pertsonen zerrendako lehenengoa, gainerakoek jarraituko diote hurrenkera korrelatiboz, ateratako txartelaren hurrengo zenbakia esleiturik daukanetik hasita eta ateratako bola edo txartelaren aurreko zenbakia esleiturik daukanarekin amaituz.

HAUTAKETA ETA BAIMENA EDO LIZENTZIA EMATEA

Zozketa egin eta Idazkari Orokorrak zozketaren akta bidali ondoren, erabilgarri dauden ortu ekologikoen erabilera eta aprobetxamendua adjudikatuko da, zerrendaren hurrenkerearen arabera, erresebatu barik dauden ortuak agortu gabe.

Ortu guztiak, udalarentzat gorde direnak izan ezik, erabili ahal izateko eskubidea adjudikatu ondoren, gainerako pertsonak itxaron zerrenda osatuko dute, zozketan ezarritako hurrenkerearen arabera, bajak edo adjudikaziodun izaera galtzea dakarren edozein inguruabar suertatuko balira, partzela erabiltzeko epea agortu baino lehen. Ordezko horiek, bere kasuan, partzelaren adjudikaziodun bihurtuko dira, uzten duen pertsonak partzela erabiltzeko epea amaitu arte falta den aldian zehar.

Partzelak ondoko hurrenkerearen arabera adjudikatuko dira: lote-zenbaki txikienetik handienara (aurretik, udalak xedatuko du zeintzuk gorde dituen gizarte-hezkuntzako helburuetarako).

Ortuak adjudikatu ondoren, erabilera edo aprobetxamenduko eskubidearen adjudikaziodunei jakinaraziko zaie Alkateak, aisialdiko ortu ekologikoak erabiltzeko baimenari buruz, emandako ebazpena. Bertan adieraziko da, besteak beste, egokitu zaien partzela-zenbakia, Baldintza Berezien Pleguaren edo deialdi hau arautzen duten oinarrien kopia erantsiz.

BEDERATZIGARRENA- ESKABIDERIK EZ BADAGO.

Adjudikatu gabeko orturik izanez gero eta baimena edo lizentzia lortu ahal izateko baldintzak betetzen dituen eskatzailek ez balego, eskabideak aurkezteko epea zabalik egongo da eta bertan Galdakaon errolatuta dauden pertsonak onartuko dira, 1d) eta f) baldintzak bete ez arren, edo beste udalerrri batzuetan bizi direnei deitu ahal izango zaie.

HAMARGARRENA.- ORTUEN ANTOLAKETA

Udalaren jabetzako eremuan erabilera ona eta funtzionamendua ziurtatzeko helburuarekin, ortu ekologikoak erabiltzeko eskubidearen adjudikaziodunek Elkartea eratuko dute.

Beraz, adjudikaziodunek bere gain hartzen dute Elkarite hori eratu edota kideak izateko konpromisoa. Hori beteko ez balitz, ondasuna erabiltzeko eta gozatzeko baimenik ez da emango. Pertsona baimenduna, Estatutuetan ezarritako betebeharrak ez betetzeagatik, Elkartetik kanporatua izango balitz, baimena bertan behera utziko da.

Udalak elkarite horrekin lankidetzeta-hitzarmena sinatu ahalko du, ortu ekologikoen mantenua egiteko, funtzionamendu zuzena izateko eta hobeto administratzeko elkarlanean aritzeko helburuarekin.

Elkariteak udalaren arduradunarekin harreman zuzena izateko pertsona izendatu beharko du. Bozeramailea, erabiltzaileen zalantzak, arazoak eta abar biltzen arduratuko da.

Elkaritea arduratuko da horniketaren alta emateko eta argia eta ur kontsumoa ordaintzeko, hala nola eremuko zonalde komunak garbiketa eta mantenu orokorra egiteko. Era berean, zaintza eta egoera onaren ardura izango du, baita eremua zabaldu eta ixtekoa ere.

Udalari jakinaraziko diote funtzionamenduko edozein gorabehera egonez gero, ahalik eta arinen konponbidea aurkitzeko.

Hondakin orokorretatik ateratako konposta ekoizteko zonaldeak Elkartearen ardura izango dira, baita ohiko mantenu-lanen banaketa egitea ere.

Elkartek, urtero, ekitaldi horretarako ordezkarien izenak, telefonoak eta posta elektronikoak jakinaraziko dizkio ortuak kudeatzen dituen Arlo arduradunari.

Ortuak kudeatzen dituen elkarteak funtzionamenduko Estatutuak izango ditu, Galdakako Udalaren baimena izan beharko dutenak.

Bere gain hartu behar duten okupaziotik ondorioztatzen den erantzukizunari erantzuteko helburuarekin, Elkarteak aseguru-poliza formalizatu beharko du.

HAMAIKAGARRENA.- ERABILTZAILIEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

ERABILTZAILIEN ESKUBIDEAK

Ortuen adjudikaziodunek ondoko eskubideak izango dituzte:

1. Adjudikatutako partzela lantzeko eta produktuez gozatzeko.
2. Bere izaeraren arabera dauden eremu komuna edo komunak erabili ahal izateko.
3. Programatzen diren jarduera guztietan parte hartzeko.

ERABILTZAILIEN BETEBEHARRAK

Ortu ekologikoak erabiltzeko baimena duten pertsonak ondokoa egin behar dute:

1. Zainketa eta mantenuko gastuak, zergak eta tasak bere gain hartu, hala nola lurzorua, instalazioak eta materiala euren ezaugarrien arabera erabiltzeko konpromisoa hartu den egoeran bueltatu.
2. Partzela eta zonalde eta instalazio komunak momentu guztietan garbi eta ondo zainduta mantentzea, partzelak banatu eta bereizten dituzten elementuak errespetatuz, elementu hauek manipulatzeko debekatuta dagoelarik. Era berean, ortuak zaindu eta ondo mantentzearen ardura, baita zabaldu eta ixtekoa ere, euren dagokie.
3. Ortua nekazaritza ekologikoaren irizpideen arabera landu. Irizpide hau ortuan lurra lantzeko egiten diren zeregin guztiei eragiten die (lurra prestatu, sastraka kendu, lurra landu, erin, haitzurtu, landatu, abonua bota, izurriteak kontrolatu, ureztatu...).
4. Modu desegokian erabiltzeagatik kaltetutako edo galdutako elementuak eta tresnak konpondu edo birjarri. Jardueraren hasieran, udala behar den materiala eta tresnak emateaz arduratuko da. Baina, elementu horiek galdu edo apurtuko balira, elkartea izango da gastu horiei aurre egin beharko diena. Udalak soilik ondo erabilitako elementu amortizatuak birjarriko ditu.
5. Ortua lantzearekin zerikusia duten jarduerak egin.

6. Partzela lantzearen ondorioz sortu diren hondakin organikoak birziklatu eta gainerakoak edukiontzietan utzi, konpost egiteko edo zuzenean partzelan helburu horretarako.
7. Gainerako pertsonekin harreman ona eta errespetuzko bizikidetzaz izatea.
8. Udalak zeregin horretarako izendatutako langileak egin dezakeen edozein ikuskapen egiten uztea eta laguntzea. Ikuskatzeko ardura duen pertsonak erabiltzaileei eskatu ahal izango die nortasuna dokumentu ofizial bidez ziurtatzea, ortu ekologikoa erabili eta aprobetxatzeko baimena dutela egiaztatzea.
9. Adjudikaziodun bakoitzak giltzak zaindu eta baimena iraungitzen denean itzuli beharko ditu.
10. Lursaila eta gainerako instalazioak entregatu, lizentziako epea amaitu bezain laster, adjudikaziodun berriek gozatu ahal izateko baldintzetan eta **giltzak eta hartutako tresneria eta bestelako materialak itzuli**. Bestela, arduradunen aurka egin daitezkeen erreklamazioen kaltetan izan gabe, pertsona horiek ezin izango dira baimen berrien titular izan, hurrengo deialdietan.
11. Behin betiko adjudikaziodunek elkartea eratu beharko dute elementu horien mantentzerako, eta udalaren arduradunarekin harreman zuzena izango duen pertsona izendatu. Bozeramaile hori erabiltzaileen zalantzak, arazoak eta abar biltzeaz arduratuko da.
12. Pertsona adjudikaziodunak udal langileen adierazpenak errespetu behar ditu, hurrenkera bermatzeko eta programaren funtzionamendu ona ziurtatzeko.
13. Okupaziotik eratorritako erantzukizuna beregain hartu, bere kasuan, dagokion aseguru-poliza formalizatu behar dela aipatuz

HAMABIGARRENA.- ORTUEN FUNTZIONAMENDU ARAUAK

- 1.- Instalazioen sistema osoaren funtzionamendua, landaketa ekologikoaren irizpideak soilik izango ditu. Ekoizpen ekologikoan egindako labore lanak eta barazkigintza lurzorua materia organiko kopurua handitzera edo mantentzera bideratuak egongo dira, luraren estabilitatea eta lurzoruko aniztasun biologikoa sendotuko ditu, eta lurzorua konpaktazio eta higadura prebenituko ditu.
- 2.- Ekoizpen ekologikoan erabiltzeko baimena duten lurzorurako ongarriak eta egokitzaileak soilik erabili ahal izango dira, 2018ko maiatzaren 30eko Europako Parlamentu eta Kontseiluaren 2018/848 (CE) Erregelamendua, ekoizpen ekologikoari eta produktu ekologikoen etiketa jartzeari buruzkoa, eta 834/2007 (CE) Erregelamendua indargabetzen duenaren, 24. artikulua araberara eta II. Eranskinaren araberara.
- 3.- Pertsona adjudikaziodunak nekazaritza praktika ekologikoei buruz badakiela egiaztatu beharko du. Horretarako, udalak antolatuta, alde aurretik **nekazaritza ekologikoei buruzko ikastaroan edo jardunaldietan parte hartu beharko da**.
- 4.- Ortua nekazaritzarako soilik erabil daiteke, eta nekazaritza ekologikoen printzipioen arabera landuko da, 2092/1991 EEE Erregelamenduan jasota dagoen bezala. Beraz, erabat debekatuta dago belar-pozaia, pestizida eta sintesi-abonuak erabiltzea.
- 5.- Ureztatze uraren erabilerari dagokionez, instalazioetan horretarako prestatutako uraskatik lortu beharko da. Dagoen ur-hartunaren instalazioa ezin izango da eraldatu, manipulatu edo aldatu, eta ur-putzuak eta ura kanpotik hartu ere ezin izango da udal baimenik gabe. Hau betetzen ez bada, baja emateko arrazoia izango da.

6.- Ortuak sasoiko landarekin soilik landu ahal izango dira. Beraz, ez da onartuko ez negutegirik ez urte-arte espezierik (zuhaitza, zuhaixkak eta abar). Betebehar hau ez bada betetzen lagapena bertan behera geratuko da automatikoki.

7.- Udalak funtzionamenduko instrukzioak eman ahal izango dizkie erabiltzaileei, bete ditzaten.

HAMAIHIRUGARRENA.- DEBEKUAK

1. Ortuen ustiapenak aisialdirako helburua dute. Hortaz, debekatuta dago bertako fruituak saltzea eta alokatzea edo beste batzuei lagatzea.
2. Debekatuta dago landa-zelaiak lantzea espezie exotikoekin, tropikalekin, psikotropikoekin edota legeak debekatuta daudenekin eta lurzorua hondatzen duten landareekin.
3. Debekatuta dago etxolak, aterpeak, aulkiak, oilategiak edo animaliak edukitzeko txabolak edo bestelako edozein motatako instalazio finko edo desmuntagarri instalatzea edota erabiltzaileek edozein obra mota egitea. Era berean, debekatuta dago txabolen egituran, fatxadetan edo barrualdeetan aldaketak egitea (iltzeak sartu, zulatu, margotu eta abar).
4. Debekatuta dago kalteak, usain txarrak sorrarazten dituen edozein erabilera edo portaera izatea, ortuen gainerako erabiltzaileen erabilera eta gozamena mugatzen dutenean edo tokiko inguruari eragiten diotenean.
5. Lurzorua hondatzen duten landareak lantzea.
6. Espezie transgenikoak edo genetika aldatuta dutenak erabiltzea.
7. Edozein motatako ibilgailuak sartze, bizikletak, umeen kotxeak edo gurpil-aulkiak eta lagadunen mugikortasuna errazteko direnak izan ezik.
8. Animaliak ortuen eremu barrura eramatea edo bertatik paseatzea.
9. Sua egin edo suak erabiltzea helburua edozein dela ere.
10. Partzela ekologikoki ortuariak edo loreak lantzeko baino ez da erabiliko, belar-pozoia, plagizida eta abonu kimikoak beren-beregi debekatuta daude, EEE 2092/1991 Erregelamenduan jasota dauden Nekazaritza Ekologikoaren arloan indarrean dagoen legeriak baimenduta ez daudenean.

HAMALAU GARRENA.- ORDUTEGIA

Funtzionamenduko ordutegia Alkatearen Ebazpenez finkatuko da, ortu ekologikoen programari atxikitako arloak proposatuta eta erabiltzaileen proposamena kontuan hartuta.

HAMABOS GARRENA.- BAIMENAK EDO LIZENTZIAK EMATEKO EPEA

1.- Deialdiaren zozketa egin ondoren indibidualki emandako baimenak edo lizentziak, Alkatearen Ebazpena eman den datatik hasita **gehienez 4 urteko eperako** emango dira.

Lizentzia edo baimena aurretik iraungi balitz, ordezkoen zerrendaren arabera dagoen pertsona adjudikaziodun berriaren lizentziak izango duen gehienezko epea izango da, falta den gehienezko epea amaitu arte.

2. Baimenak prekarioan emango dira beti eta Udalak erabaki ditzakeen aldaketen menpe egongo dira, berak baitauka edozein momentutan eskubidea eraginik gabe uzteko, mugatzeko edo murrizteko, hala aholkatzen duten arrazoiak baleude. Nolanahi ere, horri buruz hartzen den erabakian azaldu beharko dira.

Aisialdiko ortuen erabileraren mantenuarekin bateraezina den ustekabeko edo bat-bateko gorabeherarik izanez gero, Udalak, hartutako erabakian arrazoiak azalduz emandako baimena ezeztatu dezake inolako indemnitaziorik izateko eskubiderik gabe.

Kasu guzti hauetan, indemnitaziorik edo konpentsaziorik jasotzeko eragindakoei ez die inolako eskubiderik sorraraziko, bere kasuan, ordaindutakoaren zati proportzionala itzultzekoa salbu, gozatu ez den epeari dagokion zerga publiko gisa.

HAMASEIGARRENA.- BAIMENA IRAUNGI ETA BALIOGABETZEA

1.- Baimena iraungiko da besterik gabe:

- Titularrak uko egin duelako edo borondatezko baja eman duelako, Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztutako idatzi bidez.
- Titularraren ustekabeko heriotza, gaixotasuna edo ortuan lan egiteko ezintasunagatik. Kasu hauetan, oinordekoak baimena izango dute ortuak dauden ortuariak batzeko.

Kasu hauetan, ortu hori erabili eta gozatzeko aukera ezkontideari edo izatezko bikoteari eman dakioke, horri buruzko eskaerarik egongo balitz, baina beti udalaren onespena duela. Iraungitzeak ez die hurrengo ordezkoei inolako eskubiderik emango.

- Iraungitasuna, epea bukatu delako.
- Aldebakarreko baliogabetzeagatik. Baimenak ematen dituen Administrazioak aldebakarretik baliogabetu ditzake edozein momentutan, interes publikoko arrazoiengatik, indemnitazioa jasotzeko eskubiderik sorrarazi gabe, ondoren onetsitako baldintza orokorrekin bateragarrik ez direnean, jabetza publikoan kalteak sortzen direnean, interes publiko handiagoa duten jardueretarako erabiltzea galarazten denean edo erabilera orokorrari kalte egiten zaionean.
- Aprobetxamendua agortzeagatik

2.- Baimena edo lizentzia baliogabetzeko arrazoiak:

1. Galdakako udalerrian erroldatutako izaera galtzea.
2. Partzelari kasu ez egitea bi hiletan zehar edo gehiago.
3. Bizileku berean pertsona bera edo beste pertsona bat erroldatuta daudenak, aisialdiko beste ortu baten adjudikaziodun izaera izatea.
4. Aisialdiko ortu ekologikoen funtzionamendu-arauak ez betetzea.
5. Baimenaren titularra izateko baldintzak bat-batean ez betetzea.

6. Tasa ordaindu gabe izatea edo baimenaren titularrak dituen beste edozein betebeharren ez betetze larria izatea, baimena eman zuen organoak adierazita.
 7. Galdakako udalaren zerbitzura dauden langileek ikuskapenak egiten galaraztea edo zailtasunak jartzea.
 8. Ortuko produktuekin salerosketan aritzea, animaliak onartzea eta edozein ez betetze izatea edo Plegu honen hamalagarren oinarrian beren-beregi debekatuta dagoen edozein jarduera egitea.
 9. Baldintza berezien plegu honetan edo deialdi bakoitzaren oinarrietan ezarrita dagoen betebeharren bat, aipatu ez dena, behin eta berriz ez betetzea, finkatutako ordutegia haustea barne.
- 3.- Pertsona adjudikaziodun izaera galtzea interesdunei entzun ondoren egingo da.
- 4.- Uzten duten ortuzainei idatziz deituko zaie, egun baliodun batean eta jendaurreko orduetan, ortuko giltzak entrega ditzaten.
- 5.- udal Zerbitzuek partzelak berrikusiko dituzte, entrega berria egin aurretik.

PLIEGO DE CONDICIONES O BASES REGULADORAS PARA LA CONCESIÓN DE AUTORIZACIONES O LICENCIAS PARA EL USO Y APROVECHAMIENTO ESPECIAL DE HUERTOS ECOLÓGICOS DE OCIO EN EGIA

El Pleno del Ayuntamiento de Galdakao, aprobó en su sesión de 29 de septiembre de 2011 una moción relacionada con el desarrollo sostenible y las acciones para favorecer el mismo. Entre dichas acciones, se encuentra la creación de huertos ecológicos.

La moción aprobada, proponía el estudio por parte del pleno de la creación en terrenos municipales de huertas ecológicas y acordaba *“dar los pasos efectivos para impulsar la creación a medio plazo de huertas ecológicas a disposición de la población en general”*.

Esta acción, se recogía igualmente, en el II Plan de Acción de la Agenda Local 21, aprobado en sesión plenaria de 28 de febrero de 2013, en el Programa 2.1. *“Puesta en valor y adecuación de espacios verdes del paisaje en el entorno urbano y periurbano y su conexión con la población y más concretamente, en la acción 2.1.3 denominada “Elaboración y ejecución de un proyecto de huertos ecológicos de ocio”*.

Su objetivo principal es crear recursos que contribuyan a extender la educación ambiental en todos los sectores sociales, promoviendo entre la ciudadanía local un cambio de actitudes y valores, generador de comportamientos participativos y responsables, así como poner a disposición de la ciudadanía un entorno en el que producir sus propias verduras y hortalizas.

Así, esta actuación implica:

- Disponer de una infraestructura y de determinados recursos que proporcionen a las personas usuarias un espacio regulado para el cultivo de alimentos ecológicos destinados a su consumo personal.
- Diversificar la oferta de ocio y fomentar el ocio activo.
- Concienciar sobre la importancia de una alimentación sana para el mantenimiento de una buena salud.
- Sensibilizar sobre la importancia del uso de variedades hortícolas tradicionales, por su valor como especies mejor adaptadas al entorno y por tanto con menor exigencia de cuidados y tratamientos.
- Poner en valor y transmitir prácticas y conocimiento rurales tradicionales.
- Promover una serie de valores motivadores de sentimientos positivos encaminados a inculcar el respeto por la naturaleza, obteniendo frutos de ella de una forma ecológica, basada en el respeto al medio natural y los ciclos naturales, sin degradar el suelo, ni ejercer grandes cambios en el entorno.

Se trata de dar a la educación ambiental su sentido genuino de educación de valores, para que contribuya a formar una ciudadanía responsable.

Es necesario, en consecuencia, aprobar las condiciones que han de regir la selección de las personas adjudicatarias y el régimen de concesión de las autorizaciones para el uso de las huertas ecológicas de ocio.

PRIMERA.- OBJETO

El presente Pliego tiene por objeto regular los criterios de acceso, selección, uso y disfrute y aprovechamiento del suelo de dominio público destinado a huertos ecológicos de ocio de titularidad municipal en la zona de Egia (Se adjunta Plano).

SEGUNDA.- DESCRIPCIÓN DE LOS HUERTOS DE EGIA

El proyecto de Huertos Ecológicos de ocio situados en suelo demanial de Egia consta de 36 huertos delimitados, con superficies que oscilan entre los 40 m² y 50 m².

Las parcelas están individualizadas.

Respecto a las instalaciones comunes, de propiedad municipal, el complejo consta de:

- Un equipamiento de aproximadamente 30 m² en planta baja en el que se ubican los vestuarios con taquillas, ducha, aseo y un aula-despacho.
